

96. zenb.

XXXVIII. URTEA
2020 UZTAILA-ABENDUA

ISSN 2530-3287

**Vanessa
Ruiz Torres**

Futuraskolan International
School of Stockholm

vanessaruiztorres@gmail.com
[@vruizt](https://www.instagram.com/vruizt)

**Lola Torres
Ríos**

Campamento Norte

lolorresrios@gmail.com
[@lolorres](https://www.instagram.com/lolorres)

Bestelako lankidetzak

Hezkuntza-berrikuntza hizkuntza-ikasgelan. Bide posibleak

Artikulu honetan, hizkuntzak irakasteko eta ikasketa-prozesuei heltzeko ibilbide-mapa bat aurkeztuko da, ikasleen arteko komunikazioa zein elkarlaneko ikaskuntza aktiboa sustatzen duten hezkuntza-esperientzia berritzaileetatik abiatuz. Hori horrela, berrikuntza-kontzeptua aztertuko da hasteko eta behin, hezkuntza-eremuan dituen inplikazioak kontuan hartuz. Ondoren, ikasgelako esperientzia berritzaileen diseinuan inplikaturako trebetasunak eta jarrerak nabarmenduko dira. Halaber, ikaskuntza esanguratsurako gako batzuk iradokiko dira, baita hizkuntzak irakasteko eta ikasteko hainbat jardunbide egoki ere. Testua amaitzeko, praktika bat ebaluatzeko moduari buruzko gogoeta egingo da, benetan berritzailea ote den egiaztatzeko.

Gako-hitzak

berrikuntza, estrategiak, hizkuntzak, ikaskuntza aktiboa, jardunbide egokiak, jarrera kritikoa

1. SARRERA

Ikastea eta irakastea gizartean gertatzen diren prozesuak dira. Ikasteko modurik onena, beraz, beste batzuekin jardutea da. Artikulu honetan, hezkuntza-berrikuntzari heltzeko proposatzen dugun gakoetako bat honako hau da: irakaskuntza ikaskuntza-sare bizi eta ireki gisa ulertzea, zeinaren motorra izango baita ikastetxe edo arlo bereko irakasle taldeen arteko elkarriketa eta trukea, baina baita hurbil dituzten kideen artekoa ere. Hezkuntza eta beronek planteatzen dituen erronkak hezkuntza-talde osoaren ardura dira, irakasle eta ikasleek ez ezik, ikastetxeko zuzendaritza- eta administrazio-taldearenak ere bai. Hala ere, gure hezkuntza-sisteman denbora eta espazioak falta dira agian –batez ere hizkuntzen arloan–, besterekin gehiago ikasteko eta prestakuntza hori profesionalki aitortzeko eta balioesteko. Ildo horretatik, artikulu hau irakurtzen ari den hizkuntza-irakasleari gai hauek planteatuko genizkioke abiapuntu gisa: ba ote dugu betarik gure lan-jardunaldietan elkarriketarako, hausnarketarako, ikasgelan zailtasunak edo arazoak batera konpontzeko edo ikuspegi eta metodologia berritzaileei buruzko prestakuntzarako? Ba ote du inolako aintzatespenik prestakuntza horrek? Egiten ote du segimendurik gai horretan jantzia den irakasle talde batek?

Hezkuntza-berrikuntzak lau zutabe behar ditu mamitu ahal izateko: prozesuak, ezagutza, teknologiak eta pertsonak. Oinarri horietako batek huts egiten badu, ez da izango

berrikuntzarik. Horregatik, prozesu hori ez da izango bideragarria epe luzera, Trujillok (2019) dioen bezala, ez baldin bada irakaskuntza- eta ikaskuntza-baldintza onenak eskatzen dituen espiritu kritikorik; halaber, haren esanetan, berrikuntzarako ezinbestekoa izango da etengabeko komunikazio- eta prestakuntza-fluxuak izatea beste kide batzuekin, gure ezagutza komuna aberasteko eta taldean irmotasunez aurrera egiteko.

Hizkuntzen irakaskuntzan, irakasle- eta profesional-komunitate oso aktiboa dugu. Hauek ditugu horren bereizgarri nagusiak: batetik, etengabeko prestakuntza; bestetik, etengabe egokitzea gizarteak ezagutzen, teknologian, informazioan, hizkuntza berrietan eta komunikazioan bizi dituen aldaketetara. Artikulu honetan, hizkuntzak irakasteko eta ikasketa-prozesuei heltzeko ibilbide-mapa bat aurkeztuko dugu, ikasleen arteko komunikazioa ez ezik elkarlaneko ikaskuntza aktiboa ere sustatzen duten hezkuntza-esperientzia berritzaileetatik abiaturik. Esperientzia horiek koherenteak dira sortu diren hezkuntza-testuinguru espezifikoarekin, eta oso baliagarri izan dakizkiguke antzeko ekimenak gauzatzeko inspirazio gisa.

2. ZER-NOLA ULERTZEN DUGU HIZKUNTZA-IKASGELAKO BERRIKUNTZA?

We tend to think of innovators as those who contribute to a new way of doing things. But many far-reaching changes have been touched off by those who contributed to a new way of thinking about things...

John W. Gardner (*Self Renewal*, 1995).

Geure buruari galdetzen badiogu zer esan nahi duen berrikuntzak gure irakaskuntza-jardunean, ideia, material edo proiektu hurbilak etorriko zaizkigu gogora, izan kideenak, izan sarean ezagutu ditugunak. Gutako bakoitzaren kasuan, esperientzia horien baturak osatuko du hezkuntza-berrikuntzaren esanahia. Hori dela medio, berrikuntzaren definizio ireki eta malgu batetik abiatuko gara artikulu honetan, guztia ere beste praktika eta gogoeta batzuen adibideekin aberasteko.

Arreta berezia ipini nahiko genuke hezkuntza-berrikuntzaren ia edozer definiziotan agertzen diren bi kontzeptutan: aldaketa eta hobekuntza. Honetan datza hezkuntza-berrikuntza: prozesu, zerbitzu edo produktuetan aldaketa eragiten duen ideia bat modu planifikatuan burutzean, prestakuntza-prozesuak hobetze aldera (Sein-Echaluze et al., 2016). Baina, beharbada, baliteke berrikuntzaren gakoa izatea aldaketa hori zertarako egin behar den galdetzea. Ildo horretan, berrikuntza aldaketa positibo esanguratsua da irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan. Horregatik, definizio hori osatuko duten zenbait irizpide eta adierazle behar ditugu. Aurrerago ikusiko ditugu, 5. puntuan hain zuzen.

Berrikuntza beti dago lotuta teknologia digital berri batekin? Zer desberdintasun daude berriaren eta berritzailearen artean? Galdera horiexek planteatu behar ditugu, hain justu, praktika berritzaile bat gauzatzekoan edo identifikatzekoan. Berrikuntza teknologiarekin, tresna digitalen erabilerarekin eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan elementu berriak txertatzearekin lotutako testu eta praktiketan agertu ohi da. Nolanahi ere den, ikasgelan teknologia berri bat izateak ez du nahitaez esan nahi alderdi teknologikotik harago hobetu edo aldatuko denik. Irakasle garen heinean, adibidez, interesatu dakiguke ikasleen aniztasuna behar bezala integratzea, ikaskuntza-testuinguru berrietara egokitzea edo arreta ipintzea metodologia berrietan edo ikasgelan landu beharreko balioetan. Bestalde, gure ikasleek onlineko eskoletan modu aktiboagoan parte hartzea nahi badugu, balia dezakegu aplikazio edo programa jakin bat, baina ziurrenik horrek ez du arazoa konponduko. Aipatutako kasu horretan, komeni da aztertzea zergatik ikasleek ez duten parte hartzen, eta baliteke arrazoi horiek zerikusia izatea moti-

bazioarekin, jarrerarekin, egokitasunarekin, xede-hizkuntzan duten gaitasun-mailarekin edo tankera horretako faktoreekin. Aldaketa horiek edo beste batzuk integratzeko, ez da izango beti beharrezkoa teknologia berri bat baliatzea edo teknologia horretan arreta osoa ipintzea.

Berrikuntza, egiten duguna modu sortzailean birpentsatzearekin dago lotuta, eta irakas-kuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan erabiltzen diren dinamiketan edo metodologietan ipintzen da arreta. Aldaketa horiei guztiei eman dakieke erantzuna bat-batean eta erabat, 2020ko martxoan deklaraturako alarma-egoeraren ondorioz izandako halabehar-reko urruneko irakaskuntzan gertatutako moduan, edo apurka-apurka, aldaketaren bat txertatuz eta emaitzak balioetsiz, aldaketaren behararen eta horiek gauzatzeko baliabideen arabera. Bestalde, berrikuntzak lotura handiagoa du gure irakaskuntza-jarduan eguneroko ikuspegitik aldentzearekin, arazo jakin bati irtenbidea eskaini ahal izateko. Gogora dezagun aldaketek prozesuak eskatzen dituztela, batez ere hezkuntzan egindako aurrerapenetan, motelak eta inkrementalak baitira (Trujillo, 2017).

Hezkuntzan ez dago errezetarik, soluzio bakar edo behin betikorik. Hezkuntza-metodo bat bera ere ez da beti eraginkorra, ez ikasle guztientzat, ez helburu guztietarako eta ez testuinguru guztietarako ere (Ruiz Martín, 2019, 72. or.). Ikaskuntza hainbat aldagairen mende egon daiteke: pertsona, haren esperientziak, helburuak, denbora eta eskura dituen baliabideak. Metodologia bat edo bestea noiz aukeratu jakitea da erronka, edo metodologia horiek nola konbinatu asmatzea, kontuan harturik ikaslearen profila, adina, maila, autonomia, kultura eta ikasteko erritmoa, eta, bereziki, zer inguruabarretan ikasten ari den aintzakotzat hartzea. Ikuspegi berritzaile batetik irakasten jakiteak esan nahi du gai tekniko eta metodologiko batzuk ezagutzea, baina, funtsean, ikaslea eta haren testuingurua ezagutzea dakar berekin, bai eta aurreko aldagaien aurrean metodologia bat edo bestea bereiztea ahalbidetuko digun jakintza kritiko eta etiko bat aplikatzea ere.

Lehen adierazi dugunez, berrikuntza hobekuntza etengabe bilatzeko prestasuna da, ilusioz begiratu beharreko esperientziaz multzo bat, baina baita ikuspegi kritiko bat ere, zeinak denboraz eta baliabidez balioetsiko eta ebaluatuko baititu ikaskuntza-esperientziak, materialak eta ikasgelara eramaten ditugun ikuspegiak. *“A healthy dose of skepticism about the pedagogical effectiveness of many current technological tools appears to be well justified if one considers the perhaps overly enthusiastic reaction to previous technological breakthroughs”* (Salaberry, 2001, 44.or.).

3. IRAKASLEA ERAGILE BERRITZAILE GISA: TREBETASUN ETA JARRERA BERRITZAILEAK

Try lots of things. Try imaginative things. Cast the net wide. See what's out there. What we need are lots of little projects, sent out into different parts of the world, by means of many media.

Grant McCracken (*Culturematic*, 2012).

Irakasle gisa, hiru hezkuntza-berrikuntza motatan parte har dezakegu nagusiki: erakundearenean, I+G+Bko proiektuetan eta ikasgelan aplikaturiko berrikuntzan. Mota horietako bakoitzak testuinguru desberdin bati erantzuten dio, eta ikuspegi eta tresna desberdinak izango ditu ezaugarri. Lehenengo eta bigarren berrikuntza motak alde batera utzi gabe, hirugarrenari erreparaturiko dio bereziki artikulu honek; hau da, ikasgelan gure ikasleekin egiten dugun berrikuntza, haien ikaskuntzaren alde mamitzen duguna.

Ikasgelako berrikuntza metodologikoa irakasleen ekimenetik sortu ohi da. Ekimen horrek, eskuarki, praktika zehatz bat gauzatzen du, ikasleengan identifikatutako premia espezifikoko batetik edo ikasleen ikaskuntza-prozesua hobetuko duen aldaketa batetik

abiatu. Bilatzen den hobekuntza izan daiteke, konparazio batera, ikasleengan dinamika bat aldatzea, aktiboki parte har dezaten edo ikaskuntza-prozesuan inplika daitezten, baita ikuspegi metodologiko berriak arakatzeko ere.


Zer gako-trebetasunek esku hartzen dute ikasgelako praktika berritzaile bat diseinatzerakoan eta haren pilotajea egitean? Nola izan gaitzke gure eremuan gertatzen diren aldaketa eta hobekuntzen bozeramaile aktibo? Jarraian, hiru ardatz proposatuko ditugu, hizkuntza-ikasgelako berrikuntza-proiektuen aurrean ikuspegi irekia eta malgua garatzeko.

3.1. ZEU ZARA BITARTEKOA

Internet XXI. mendeko inprenta da (Piscitelli, 2009). Historian inoiz ez da izan gaur adina ikasteko aukera. Nonahi eta noiznahi, gainera. Alabaina, informazioa eskura izateak ikastea esan nahi ote du? Zer ekarpen egiten diogu hizkuntza-irakasleok gure ikasleen ikaste-prozesuari? Irakasle garen aldetik, behin eta berriz esaten digute jakintzaren gizarte berrian eguneratuta egoteko teknologia txertatu behar dugula hezkuntzan, ikaskuntza hobetzea bermatzen duen erreminta gisa. Hala ere, ezer gutxitarako balio du praktika zaharrak digitalizatzek, ez badugu alde aurretik hausnartzen zer ekarpen egiten dioten tresna eta baliabide berriek gure ikasleen ikaskuntza-esperientziari. Teknologia ikasgelan edo irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan txertatzea ezin da ulertu ez bada modu gogoetatsu, kritikiko eta esanguratsuan. Tresnak hizkuntza-ikasgelan diseinuaren zerbitzura jartzeak esan nahi du, batetik, teknologia gure komunikazio-helburuetara egokituta erabiltzea eta, bestetik, gure programazioetan modu esanguratsuan txertatzea. Erreminta teknologikoen erabilera dakarten ikasgela-berrikuntzak diseinatzerakoan, hainbat galdera hartu beharko genituzke aintzakotzat. Ezinbestekoa al da teknologia dena delako egitekorako? Nola aldatzen da jardura baliabide analogikoekin egiten bada? Komunikazioaren zerbitzura al dago teknologia? Teknologiak esperientzia aberastu dezake, ikasteko eta trukatzeko espazioak zabalduz eta komunitateak garatzea eta sortzea erraztuz. Nola ziurtatu diseinatzen ari garen praktika esanguratsua dela? Kuklinskik dioen bezala (2020), premia pedagogikoa tresnaren aurretik jarritz eta gauzatzearen nondik norakoak zehaztasunez definituz.

Galderak egitea ezinbestekoa da ikasgelarako berrikuntzak diseinatzerakoan. Horren adibide da, konparazio batera, *Conecta 13k* egindako proposamen hau, ikaskuntza-proiektuak erraz eta bisualki diseinatzeko. Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza-ereduarekin lan egiten duten irakasleei zuzenduta badago ere, gure esperientzia modu esanguratsu eta sortzailean diseinatzen lagungarri izan daitezkeen galdera garrantzitsuak irakurriko ditugu. Nabarmendu behar dugu proiektuaren hedapena kontuan hartzen dela; izan ere, gure proiektuak partekatzeak horiek hobetzeko aukera emango digu.

1. irudia. Elkarlanean pentsatzeko dokumentua, Conecta13k diseinatu eta Creative Commons lizentziarekin argitaratu. Txantiloia eskuratzeko: <https://conecta13.com/canvas>



3.2. EKINTZA, INSPIRAZIOAREN AURRETIK

Diskurtsoa bakarrik ez da nahikoa gure praktikak hobetzeko. Irakasleok ondotxo dakigu hori, ikasleen ikaskuntzan etengabe doikuntzak egitea eta ikasgelara sartzen garen bakoitzean ziurgabetasuna kudeatzea baitira gure zereginak. Hizkuntza-ikasgela gune bakarra eta berezia da, irakasleak benetako *makerrak* diren laborategi gisa funtzionatzen baitu: lehenik, sortzen ditugun esperientzien ezagutza egiten dugu, eta, ondoren, atera egiten dugu jakintza hori. Hain zuzen, irakaslearen hausnarketak mugiarazitako prozesu zikliko batez ari gara. Ikasgelan esperientziak berritzen ikasteko aukera ematen digu, eta horretan funtsezko bi trebetasunek esku hartzen dute. Lehenengoak benetako konponbideak eskaini ahal izateko beharrak eta arazoak identifikatzen jakitearekin du zerikusia. Praktika berritzaile batek ez du esan nahi ikasgelara ideia handiak eraman behar direnik, baizik eta hazi daitezkeen ideia txikiak eramatea (McCracken, 2012), ikasleen ikaskuntza-esperientzia hobetzea eta aberastea. Bigarren trebetasuna gure jardunbideetan aldaketak egitearekin eta txertatzearekin dago lotuta, lehen aldiz aztertzen ditugun ikuspegi, metodologia eta tresna berriak erabiliz. Edozein praktika berritzailearen gakoa ez da zer egin behar den, baizik eta nola egin behar den. Zer-nolakoa izango den diseinuak definituko duen zer hori: erabilitako metodologia, jarraituko ditugun urratsak, ikasleen lan-dinamikak, eta abar. Prozesu horretan, pertsonen arteko trebetasunek ere esku hartzen dute. Norberarekiko eta besteekiko malgutasunak, moldagarritasunak eta akatsen aurreko jarrerak definituko dituzte esperientzia horiek. Eta, haietan, egiteko garrantzitsua du zailtasunen, arazoaren, akatsen eta porroten kudeaketak, ikaskuntza-iturri gisa.

3.3. IKASGELATIK SARERA

3.1 puntuan aurreratu dugun bezala, partekatzen ez den praktika berritzaile bat ezin da hobetu inoiz. Ikasgela etengabeko ikaskuntzaren oso zati txikia dugu. Irakasle eta ikasle asko ari dira modu informalean esperientziak tresna eta ingurune digitalen ikasteko potentziala, ikasgelaren luzapen gisa. Irakasle garen heinean, ohituta gaude ingurune

eta sare digitaletako komunikazio-modalitate eta -espazio desberdinak konbinatzera, ikasleen arteko interakzioa sustatzen duten jardueren bidez. Zergatik ez egin gure etengabeko prestakuntzan ere? Gaur egun, hamaikatxo erreminta ditugu partaidetzara, elkarrekintzara eta ezagutza eraikitzen bideratutako edukiak kudeatzeko eta argitaratzeko, eta, haien erabilgarritasunari esker, oso tresna eraginkor bihurtu dira elkarrekikotasunean eta lankidetzan oinarritutako berrikuntza-sareak sortzeko (Cobo, 2007). Berritzeak esan nahi du, halaber, elkarrekikotasunaren kulturaren parte hartu behar dela, edukiak sortu eta landu behar direla, beste batzuek abiarazten dituzten proiektuetan parte hartu behar dela, eta balioa sortu behar dela gure irakaskuntza-komunitateak dituen ageriko topaguneetan. Horren adibide ugari ditugu hizkuntza-irakasleen artean, hala nola kalitate semantikoko gordailuak –esate baterako, María Méndez Santosek sortua (Alacanteko Unibertsitatea), *Guía para profesorado de ELE. Versión 6.0* gidaren egilea bera–, edo elkarlaneko datu-base bat, gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakasteko bitartekoak eta aplikazioak biltzen dituen –heldu, haur eta nerabeei zuzendua, Esperanza Román (George Mason Unibertsitatea) buru duen ekimena¹. Irakasleen artean oihartzuna duten jardunbide egokien beste adibide batzuk José Ramón Rodríguez Martín eta Jennifer Niñoren blogak dira. Horietan, ikasgelatik ateratako gogoeta multzo baliotsua dago bilduta, baita eurek sortutako materialak eta kalitatezko prestakuntza-edukiak ere; *#twitterparalingüistas* traola, Mamen Horno (Zaragozako Unibertsitatea) psikolinguistak sortua; gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakasteko (ELE) atlasa, Mar Galindok eta María Méndez Santosek koordinatutako lana (Alacanteko Unibertsitatea), zeinaren bidez herrialde bakoitzeko historia, tradizioa eta hezkuntza-politikak ez ezik proiektu horretan parte hartzeko prestu agertu diren irakasleen esperientziak ere biltzen baitira. Orain-oraingoz, lehen liburukia argitaratu da, ekialdeko Europari eskainia, eta bigarrena amaitzeke dago, ekialdeko Asiari buruzkoa.

Horrek guztiak etengabeko prozesu bat eskatzen du, ez trukerako bakarrik, baizik eta ikasgelan edo gure erakundeetan egiten ditugun proiektuei ikusgarritasuna emango dieten estrategiak diseinatzeko ere bai. Gogora dezagun ez garela inoiz hutsetik abiatzen: beste irakasle batzuek egindako berrikuntzen gainean sortzen dugu beti, eta ezagutu, aipatu eta eskertu egin behar ditugu.

Orain arte, hezkuntza-berrikuntzaren kontzeptua aztertu dugu, eta hobekuntza-planak sortzeko eta ekintzara eramateko funtsezko trebetasunei buruz egin dugu gogoeta. Hezkuntzan ez dago errezeta edo plan bakar bat, esan dugun bezala, ezpada hizkuntza-ikasgelako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan lagungarri izan daitezkeen osagaiak. Ziurrenik, lagungarri izango zaizkigu proiektu berritzaileak identifikatzeko eta sortzeko. Hurrengo puntuan, gako eta esperientzia horietako batzuk aipatuko ditugu, zeinak transbertsalitateak eta, bereziki, ikaskuntza esanguratsua eta konektatua errazteko eta gidatzeko duten moduak nabarmentzen baitituzte.

4. IKASKUNTZA ESANGURATSU, GOGOANGARRI ETA TRANSFERIGARRIRANTZ

Las redes han sido siempre sociales
Ramón Andrés (*Puntos de fuga*, 2015).

Behin eta berriz diogun bezala, hezkuntzan ez dago irtenbide bakarrik, ezta ikaskuntza bermatzeko metodologia edo ikuspegi bakarrik ere. Ikaskuntza-egoera batean edo bestean arrakasta izateko, hainbat aldagaik esku hartzen dute, hala nola ikaslearen profila, alde aurreko ikaskuntza-esperientziak, ustek, hezkuntza-testuinguruak, eskura dituen baliabideak edo une jakin horretan ikasteko duen borondateak eta jarrerak. Une eta garai bakoitzean, desberdinak izango dira ikasgelako praktikak eta, bereziki, hizkuntza-irakasleen prestakuntza markatzen dituzten hezkuntza-joerak, metodologiak edo

¹ Ikus <https://airtable.com/shrA3HcTaqOjF8SGV/tblvRf7YTFkWE6XaG/viwmuxnvSLrpLAQjR>

ikuspegiak. Joera horiei molde kritikoz begiratzea proposatzen dugu, ez baitute beti berrikuntza ekarriko eta ez baitira beti eraginkorrak izango gure eskoletan. Esan bezala, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuko aldagai ugariaren mende egongo dira. Joera horietatik harago, egoki irizten diogu zenbait gakoren gainean hausnartzeari: beti berriak ez izanagatik ere, lagungarriak izango direlakoan ikasgelan zailtasunen bat konpontzeko, prozesuak hobetzeko eta, azken batean, ikasleari bere ikaskuntza-prozesuan eraginkorrago izaten laguntzeko. Alegia, ikaskuntza esanguratsua, iraunkorra eta transferigarria lortzeko.

4.1. IKASKUNTZA AKTIBOA, PERTSONALA ETA GOGOETATSUA

Hizkuntzen irakaskuntzan eta ikaskuntzan, ikuspegi komunikatiboak, atazen arabera ikuspegiak edo proiektuetan oinarritutako ikaskuntzak ikaslea hartu dute ardatz. Ondorioz, ikaslea da bere ikaskuntza-prozesuaren eragile nagusia; hizkuntza erabiliz modu kontzientean jokatzeko eskatzen dio rol honek. Hala ere, ekintza hori benetan kontzientea izan dadin, ikaskuntza aktiboak beste urrats bat ere bildu behar du; ikaskuntza-esperientziak ikasten duenari eta ikasteko moduari buruzko hausnarketak hartu behar ditu barnean, non ikasleak aktiboki pentsatzen baitu ikaskuntzaren objektuari buruz, esanahia bilatuz eta aurretik zituen ezagutzekin kontrastatuz (Ausubel, 1976). Gure ikaskuntza-esperientziak, ohiturak edo usteak direla eta, ez gaude beti prest gure kabuz horrelako jarduerak egiteko, eta beste horrenbeste gertatzen zaie gure ikasleei ere. Horregatik, erabakigarria da irakaslearen egitekoa, ikasgelara ikaskuntza metakognitiboa eramanez, dela jarduera indibidualen bitartez, dela taldeko jardueren bitartez, betiere ikaskuntzaren gaineko hausnarketa gidatua, esplizitua edo erakusgarria eskainiz. Hausnarketa kritiko partekatuak gure ezagutza komuna zabaltzen du, eta gure gaitasun kolektiboa hobetzen. Horren adibide izan daitezke gramatika bisualeko jarduerak edo gramatika marraztekoak. Halakoetan, gure ikasleei hizkuntzak nola funtzionatzen duen hausnartzea proposatzen diegu, eta azalpenean parte hartzeko aukera eskaintzen diegu (ikasleei eta ikaskideei) ikasten ari diren hizkuntzan konplexuak izan daitezkeen erabileren eta esanahien irudiekin, hala nola iraganeko hizkuntza-formen kontrastea edo preposizioak. Alde horretatik, Rodríguezek (2014) hainbat adibide proposatzen dizkigu preposizioak bisualki irudikatzen. Niñok (2019), berriz, hainbat ideia eskaintzen ditu ikasgelan metafora kontzeptualak eta bisualak lantzeko, Lakoff eta Johnson egileek (2017) hizkuntzalaritza kognitiboaren gainean landutako ideiei jarraikiz.

Jarduera metakognitibo horiek testuinguruan kokatuta egon daitezten eta ikaslearentzat esanguratsuak izan daitezten, ikaskuntza-prozesu pertsonalean jarri behar dute arreta, eta, beraz, hausnarketa egin behar da lehendik dakitenari buruz, egin dezaketinari buruz eta dakitenarekin komunikatu dezaketinari buruz, baina baita ikasi nahi dutenaren eta hori lortzeko behar dutenaren gainean ere. Horretarako, gure ikasleak inplikatu egin behar ditugu ikasten ari direna beren aurretiko ezagutzekin lotzen lagunduko dieten jardueretan, prozesu horretan bi informazioak berreraikiz eta berregokituz. Ikuspegi horretatik, alde aurreko ezagutzak aktibatzen dituzten jarduerak egin behar dira, zehazki, kasuan kasuko ikaskuntza-lanerako egokienak direnak. Proposamen mota horiek ikaslearen hurbileko testuinguru pertsonaletik abiatu beharko dute. Proposamen horiek ikaskuntzaren xedeak esku hartzen duen egoera ezagunen bat agertuko beharko dute, nahiz eta agian ikaslea bera horretaz jabetu ez. Hori hurrengo urratsa izango da. Ikasgelan halako proposamen bat egiteko, testu bat izan daiteke abiapuntu (hitzen hodei bat, irudi bat, meme bat, bideo labur bat); horietan, ikasleak hitz ezagun batzuk identifikatu ahal izango ditu, baina baita etorkizuneko ikaskuntza-erronka batzuk eta bere ikaskuntza pertsonalerako espazio bat ere. Beste adibide bat, Instagrameko ikaskuntza-egunkari bat da; horien bidez, ikasleek ikaskuntza pertsonal informalearen laginak eramango dituzte ikasgelara. Azkenik, modu ebaluatzailean ere landu dezakegu hausnarketa; esate baterako, *Pocketfolio*en bidez (ikus 2. irudia). Autogogoeta egiteko ariketa

horren bidez, ikasleei beren ikaskuntza-helburuak bistaritzen, ezartzen eta monitorizatzen laguntzen zaie, bai eta ikusitako edukien eta ikasturtean zehar egindako proiektuen erregistro bisual eta dokumentatua eramaten ere².

2. irudia. Pocketfolioak. Manuela Menaren proposamena, Campamento Nortek antolatutako "Aprender a aprender" ikastaroan.




Ikasleak parte hartzea da jarduera horien helburua, eta ikasten duena bere testuinguruarekin ez ezik premia eta interesekin ere lotzea. Prozesu horretan, ezagutza berriak ikasteko prozesuan inplikatzeko dira ikasleak, beren ikaskuntzaren eragile nagusi gisa parte hartuz, ikasten dutenari esanahia bilatuz eta nola ikasten duten gogoeta eginez. Dagoeneko dakigunaren eta ikasi nahi denaren eta ikas daitekeenaren arteko espazio horretantxe gertatzen da ikaskuntza. Ingurune aldakor batean, oraindik ezagutzen ez dugun testuinguru baterako ikasten lagunduko diguten estrategiak garatzera bideratu behar ditugu irakaskuntza eta ikaskuntza; alegia, ikaskuntza kritikoa eta arduratsuan zentratutako estrategiak, ez informazioari dagokionez bakarrik, baizik eta ikasteko moduen aurrean ere bai. Gure egitekoa, irakasle gisa, oreka hori aurkitzea da: ikasle bati pizgarriak ematea, beste bati laguntzea, agian norbaiti itzaroteko esatea; finean, gure plana etengabe gelako jardunera egokitzen aritea (Alonso, 2020). Horretarako, ezinbestekoa da gelan denbora eta espazio esplizitu bat eskaintzea estrategia metakognitiboetarako, ikasleak bere burua uler dezan ikaskuntza-prozesuan, hizkuntza baten ikasle gisa identifika dezan bere burua.

² Instagrameko egunkaria eta Pocketfolioak Campamento Norteren *Aprender a aprender* ikastarotik hartuak dira (2019ko edizioa).

4.2. IKASKUNTZA GOGOANGARRIA

Ikas dezakegu ikasgelarik, materialik edo irakaslerik gabe; hau da, irakaskuntza beharrik gabe, ikasgelaz haraindiko gure bizitzako egoera eta esperientzietatik abiatuta. Dena den, hezkuntzak eta irakasleek honako hau egin dezakete: ikaskuntza-egoerak antolatu eta kudeatu, eta egoera ezin hobekak eskaini, ikaskuntza hori ahalik eta ondoen gerta dadin. Inguruabar horien helburua izango da ikaskuntza-esperientziak sustatzea, zeinetan ikasleak irakaskuntza-prozesuarekin lotuko baitu bere bizitza; hala, bere burua ikasle gisa identifikatuko du prozesu horretan –kasu honetan, hizkuntza baten eta hizkuntza haren kulturaren ikasle gisa-. Ikasketa gogoangarriaren adibide bat Pilar Concheiro irakasleak (Islandiako Unibertsitatea) egin zuen, Reykjavík Verzlunarskóli Íslands bigarren hezkuntzako ikastetxeko gaztelania-ikasleekin. *El mapa de mi memoria* zuen izena egitasmo hark (Concheiro, 2017). Proposamen hartan, ikasleek ibilbide bat sortu behar zuten, beren bizitzako leku garrantzitsuenekin; alegia, haientzat garrantzitsua izandako zerbait gertatutako tokiak edo haien oroitzapen eta memorien parte zirenak. Deskribapen idatziarekin batera, audio-, bideo-, irudi-, argazki- eta musika-artxibo bat ere bazegoen.

3. irudia. *Ikasle baten mapan bildutako leku baten deskribapena (Concheiro, 2017).*



Aurreko puntuan, ikasteko garrantzitsua dela dagoeneko dakiguna ikas dezakegunarekin lotzea azpimarratzen genuen. Baina ikaskuntza-prozesua harago doa, ikasitakoa tesuinguru eta egoera berri eta desberdinetan proiektatuz eta praktikan jarritz. Prozesu horretan guztian, bada funtsezko faktore bat, gure ikasleekin landu behar duguna: memoria. Memoriak egiten gaitu gu: gogoratzen duguna gara, eta badakigu zer gogoratzen dugun (Alonso, 2020). Alde batetik, lagungarri izan daiteke ikaskuntzak memoria sensorialarekin zerikusia duten jarduerak ikasgelara eramatea –zeregin horiek kanpoko informazioa aztertzea proposatuko diote ikasleari, berehalako erantzuna merezi duten eta gure arreta behar duten estimulu erakargarriak bilatze aldera-. Jarduera horiek lagungarriak izango dira gerora behatzeko, ulertzeko eta gogoratzeko gai izango garenerako. Bestalde, ikasleei gai jakin bati buruzko alde aurreko ezagutzak aktibatzea eska-

tzen dieten jarduerak ere beharko ditugu, baina baita alde aurreko edo oraintsuko ezagutza hori sakontzeko, zabaltzeko eta hedatzeko aukera eskaintzen dutenak ere. Hori horrela, agian interesgarriagoa zaigu ideia edo ezagutza jakin baten inguruko guztia ikastea, ideia berri deskonektatuak edo testuingururik gabeak ikastea baino (adibidez: ideia-jasa zabaldua eta antolatua, kontzeptu-mapak eta abar). Memoriaren garapenarekin lotutako hiru jarduera mota proposatzen ditugu. Lehenik eta behin, ikaskuntzaren objektuari buruz pentsatzea eskatzen dutenak, aurreko puntuan ikusi dugun bezala (adibidez, ikaskuntza-egunkariak, portfolioak, foku-taldeak...). Bigarrenik, ikaskuntza hainbat egoerarekin konektatzea eskatzen duten proposamenak, ikaslearen beraren errealitatetik abiatuta, bere bizitzan izan dezaketen erabilera zuzena ikus dezan (hizkuntza-paisaia, Instagrameko egunkari bisualak). Azkenik, gomendagarriak dira ebaluazio- eta autorregulazio-jarduerak; horietatik dira ikasteko tresnarik onenetako bat, non ikasleak ikasitakoarekin topo egiten baitu eta bere burua zalantzan jarri behar baitu, bere ezagutzak proban jarri, helburu pertsonal batekin, baina baita partekatuz ere (adibidez: parekoen arteko ebaluazioa, errubrika partekatuak, ikaslea ebaluazio-proben sortzaile gisa, gaizki-ulertu linguistiko edo kulturaleri buruzko balizko jarduera bat Twitterren³...).

Emozioek, sinesmenek, jarrerak eta sentimenduek lotura garrantzitsua dute arretarekin, memoriarekin eta oroitzapenak aktibatzearekin (bistakoa denez), eta erraztu edo zaildu egin dezakete ikaskuntza, bereziki testuinguru akademikoan. Alde horretatik, eragin berezia dute errendimenduari lotutako emozioek; hau da, ikaskuntza-zeregin jakin bat ondo edo gaizki egiteari edo ikasle gisa dugun irudiari lotutakoek. Geure buruari eta gure gaitasunei buruzko sentipen moduak erraztu edo eragotzi egin dezake ikaskuntza (Arnold, 2006). Horregatik, irakasleak egiteko garrantzitsua du ikasleari kontziente izaten eta haren usteak zuzentzen edo birplanteatzen laguntzerakoan. Bilaketa horren zati batek, hizkuntza-ikasle gisa duen autokontzeptua definitzen du, eta eragina izango du haren ikaskuntza-prozesuan. Irakasleok autokontrol-estrategiak (ikaskuntza-estrategiak) garatzen lagun diezaiekegu ikasleei, emozio horiek erregulatzeko ikaskuntzaren mesedetan. Esan dugu irakaslearen zeregin nagusia ikaskuntza erraztuko duten egoerak sortzea dela. Bestela esanda, ikaskuntza-ingurune zorrotza baina eroso sortzea. Horrela, ikasleari emozioak erregulatzeko irakatsi ahal izango baitio estrategia zehatzen bidez, hala nola frustrazio- edo antsietate-emozioak identifikatuz eta ulertuz, eta, bereziki, ikasleekin errorearen esanahiari eta funtzioari buruz hausnartuz, guztia ere ikasleak akatsak ez egoteko kausa finko eta kontrolaezineki, baizik eta ikaslearen beren mende dauden aldagaiei –jarrera, lana eta ikasteko estrategiei, kasu– (Ruiz, H. 2020).

4.3. IKASKUNTZA IREKIA ETA KONEKTATUA

Teknologia berriek inpaktu handia izan dute ikasteko eta besteekin harremanetan jartzeko moduan. Gaur egun, Internet bidez mundu osoko erabiltzaileekin partekatzen moduko bitarteko eta tresna digitalekin egiten ditugu gure eguneroko jarduera asko eta asko (irakurri, idatzi, argazkiak egin, musika entzun eta abar). Gailu mugikorrei esker, noiznahi eta nonahi eskura ditzakegu tresna eta ingurune guztiak, baita pertsonengana hurbildu ere. Bizitza digitala eta bizitza analogikoa alde guztietan dauden continuum bat dira, errealitate beraren parte, eta, beraz, ikasteko bokazio beraren parte ere bai: gure ikaskuntza-esparru pertsonalaren parte dira Facebook, Twitter eta eguneroko kafetegia. Nola aprobetxatu tresna, ingurune eta sare digitalen konexio-potentziala hizkuntza-ikasgelan? Teknologiaren eta hizkuntzen ikaskuntzaren arteko harremana ez da zuzena, baizik eta gizarte- eta hezkuntza-praktiken bidez mamitzen da. Informazioa eskuratzeak ikaskuntza bermatzen ez duen bezala, tresnak eta ingurune digitalak erabiltzeak ez du eragiten nahitaez hobekuntza, aldaketa edo berrikuntza. Teknologia funtsezko egitekoa du, elkarlaneko ikaskuntzarako eta besterekin ezagutzak eraikitzeke espazioak sortzea ahalbidetzen duen aldetik. Hizkuntza-ikasgelan, teknologia beti egon behar du ikaslearen komunikazio-gaitasunaren garapenaren zerbitzura. Alde horretatik,

³ #gaizkiulertuak traol-hitza balia liteke, esate baterako.

espazioen, lekuen, ekitaldien, pertsonen eta teknologiaren arteko elkarrekintzak ikaskuntza-testuinguru formaletik kanpoko aukerak sortzen ditu, eta balio handiko komunikazio-esperientziak bultzatzen edo sustatzen dituzte. Ikaskuntza konektatu eta irekiaz hitz egiteak berekin dakar ikasgelako esperientzia zabaltzea, guztia ere xede-hizkuntzaren ikaskuntza-prozesua aberastuko duten bestelako espazioekin (analogikoak eta digitalak), pertsonekin, komunitateekin eta ezagutza-arloekin elkarreaginean jardunez.

Espazioei buruz hitz egiten badugu, hizkuntza agerian geratzen da jabari publikoan. Egunero irakurtzen dugunetik zenbat sartzen da ikasgelara? (Pons, 2019). Zergatik ez konektatu ikasgelaren literazitatea beste ikaskuntza-espazio informal batzuenarekin? Ana Aristuk, hizkuntza-irakasleen hezitzailea bera, adibide ireki eta konektatu bat eskaintzen digu *Creación de corpus a partir del paisaje lingüístico* izeneko ikastaroan, Campamento Norteren ikaskuntza-ikasgelako lexiko-ikastaroaren barruan. Proposamen horretan, ikasleek argazkien bidez ikusten eta dokumentatzen dute nola dagoen irudikatuta emakumea beren hiriko hizkuntza-paisaian, eta, ondoren, hautaketa bat argitaratzen dute Twitterren edo Instagramen, emakumeak eremu publikoan duen irudikapenari buruz gogoeta egiteko. Praktika horrek erakusten duenez, ikaskuntza irekiak ikasleko aukerak areagotzen ditu hezkuntza-sistema formaletatik harago, eta sarbide askeko ikaskuntza-baliabide eta -komunitate irekien erabilera sustatzen du. Ikaskuntza ireki eta konektatuaren beste adibide bat –kasu honetan hirigunean– *Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara* izeneko proiektua da ⁴, Donostiako Jakintza ikastolaren ekimena. Antiguano eskola eta auzoa lotzen dituen pasabide bat biziberritzea da helburua, auzoa leku atseginagoa izan dadin. Ikasleek, lehenik eta behin, gustuko dituzten auzoak arakatu dituzte, ideiak eta informazioa lortzeko. Ondoren, maisu-maistrekin, gurasoekin, auzoko bizilagunekin eta ikastetxeko langileekin batera, pasabide horren eraldaketa diseinatu eta garatu dute, auzoaren eta ikastetxearen arteko harremana indartuko duen kultura-trukerako espazio bat sortzeko, edo, bereziki dioten bezala, ikastetxea auzotik atera eta auzoko txoko batzuk ikastetxe bihurtzeko.

Pertsonen eta espazioen arteko ikaskuntza konektatuaz hitz egiteak nahitaez eskatzen du sareez hitz egitea: *“Knowledge is distributed across a network of connections, and therefore that learning consists of the ability to construct and traverse those networks”* (Downes, 2007). Sare bat osatzen duten nodo eta espazioen arteko konexioetan datza ikaskuntza, non gutako bakoitzak ezagutza ekartzen baitu eta elkarlaneko balio bat lortzen baitu ideien konexio eta konbinaziotik (edo nahasketatik) (Siemens, 2010). Sarean ikasteak esan nahi du gure ikaskuntza-beharrak asetzen dituzten iturri eta no-dotara konektatzeko trebetasuna garatzea. Hizkuntza-ikasgelan, funtsezkoa da ikaslea ikaskuntza horren elementu (edo nodo) izatea eta beste nodo batzuetatik eta sare formal zein informal desberdinetan ikastea. Nola lagundu sarean ikasten hizkuntza-ikasgelan? Sarean gertatzen da erabiltzaileen arteko elkarriketa nagusia, eta, beraz, ingurune digitalez eta gailu mugikorrez baliatu gaitezke gure ikasleek xede-hizkuntzan duten interakzio irekia sustatzeko eta partaidetza sozializatzeko. Txio bat argitaratzeak edo *influencer* gogokoenaren Instagrameko argazki bati iruzkinak egiteak aukera ematen die ikasleei xede-hizkuntzarekin eta hiztunekin harremanetan jartzeko, modu natural eta errealean eman ere. Ikaskuntza konektatuaz eta sareaz hitz egiteak esan nahi du ikasleak kontuan hartu behar direla erabakiak hartzerakoan, eta parte hartu behar dutela edukiak sortzen eta zeregina antolatzen. Hemen, nabarmentzekoa da Reyes Llopisen (Columbiako Unibertsitatea) *NYC as a Canvas for Spanish Language, Culture, and Identity* proiektua (Columbia LRC, 2015; Llopis, 2015). Bertan, paisaia linguistiko eta kulturalaren proposamen bat topatuko dugu, zeinak New Yorkeko ikasleak hiri hura arakatzera gonbidatzen baititu, espainieraz mintzo direnen nortasun soziologikoaren argazkia egin dezaten. Proiektuak hainbat ataza ditu, ikasleen mailara egokituak, eta Reyes Llopis irakasleak egindako galderetatik abiatzen da –galdera horien bidez, hasierako hausnarketa bat egiten dute, eta egitekoak prestatzen–.

⁴ Bideo honetan, ikasleekin eta irakasleekin proiektua prestatzeko fasea ikus daiteke: <https://vimeo.com/164104702>

Kasu guztietan, ikasleek hiriak eskaintzen dituen hizkuntza- eta kultura-edukiak aztertzen dituzte, xede-hizkuntzaren erabileraren testuinguru errealean. Asmoa da ikasleek gaitasun kritikoa garatzea, ikasgelatik kanpo benetako ikaskuntza-baliabideak erabiliz: hiztun natiboak, kultura-tresnak, ekitaldi sozial eta akademikoak, hiriko auzoak eta sare sozialen erabiltzaileak⁵. Hasierako mailetan, ikasleek xede-hizkuntzak hirian duen presentzia aztertzen dute, eta hiriko artearen laginak bilatzen dituzte, zeinak baliagarriak izango baitzaizkie artearen kontzeptuari eta haren erabilera politiko eta kulturalari buruz hausnartzeko ere. Tarteko mailetan, ikasleek euren aurkikuntzak eta esperientziak partekatzen dituzte Twitterren, edukien eta ikasteko baliabideen zaintzaile bihurtuz. Maila aurreratuko ikasleek ikertzen dute zer presentzia duen xede-hizkuntzak New Yorkeko auzo hispanoetan, eta zuzenean jartzen dira harremanetan erabiltzaileekin.

Denok lotzen dugu gure ikaskuntza interesatzen zaigunarekin; gure ikasleek ere halaxe egiten dute etengabe. Hizkuntza-irakasleok, horretaz jabeturik, saiatzen gara ikasgelara eramaten gure ikasleak motibatzen dituzten eta haien mundu pertsonalarekin bat egiten duten materialak eta jarduerak (Aristu, 2020). Eta hori ezinbesteko urratsa da irakaskuntza-ingurune egokia eraikitzeke. Eta, bereziki, hizkuntza bat ikastea etengabe dago harremanetan beste jakintza-arlo eta diziplina batzuekin; dela ikasleen behar eta interes partikularrengatik, dela programazioan jaso gabeko gaurkotatutako gertaera bat eztabaidatzen delako. Hizkuntzen irakaskuntza etengabe dago harremanetan beste jakintza-arlo eta diziplina batzuekin; hain justu ere, bada helburu espezifikoak dituen ikaskuntza-modalitate bat, zeinean lanbide-eremuak zehazten baitu zer hizkuntza mota ikasi behar den. Derrigorrezko hezkuntzaren esparruan, berriz, Edukien eta Atzerriko Hizkuntzen Ikaskuntza Integratuko metodologia baliatzen da (*AICLE* edo *CLIL*, gaztelaniazko eta ingelesezko siglen arabera, hurrenez hurren), edukia eskuratzeko komunikazio-tresna gisa (Attard Montalto et al., 2016). Beste diziplina batzuekin loturiko proposamen-adibide gisa, Educa Thyssen etxearen *Alfabetos* proiektua nabarmendu behar dugu. Hizkuntzen eta kulturarteko hezkuntzaren laborategi bat da, ingelesezko eta espainierako irakasle eta ikasleei zuzendua, eta hizkuntzak artearen bidez irakastea proposatzen du. Proiektu horrek artearen, hizkuntzaren eta kulturaren inguruan hausnartzeko aukera eskaintzen du, komunikazio-testuinguru erreal batean parte hartuz eta Thyssen-Bornemisza Museo Nazionaleko arte-bilduma gerturatuz museora joan ezin diren ikasleei.

5. NOLA JAKIN HEZKUNTZA-JARDUERA BAT BERRITZAILEA DEN?

*No distingo lo complicado de lo simple
Lo que está bien
Lo que está mal
Lo correcto y lo que no
La Bien Querida (¿Qué?, 2019).*

Irakasleok egunero hartzen ditugu gure ikasleen ikaskuntzaren aldeko erabakiak: eskola bat programatzean, lankideekin elkartzean, ikasgelara jarduera berri bat eramatean edo etengabe prestatzean. Gainera, baditugu proposamen eta esperientzia didaktiko ugari; ikasleen ikaskuntza hobetzeko xedea duten ikuspegi, metodologia zein jarduerak ikasi eta partekatzeko helburua duten irakasleek sareratatutako ekarpenak dira halakoak. Baina zerk bihurtzen ditu esperientzia horiek praktika berritzaile? Nola aprobetxatu ditzake hezkuntza-komunitateak hainbeste lan eta ordu? Nola bihurtu errentagarri? Halako erabakiek eta praktikek senez jokatzea eskatzen dute neurri handi batean;

⁵ #2101nyc traolean kontsulta daiteke NYC proiektutik abiatuta Twitterren ikasleek eta irakasleek egindako elkarrizketa.

gure esperientzietatik abiatuta eraikitako hezkuntzari buruzko ezagutza eta usteetan oinarritua dago sen hori. Intuizio edo “txinparta” sortzaile hau ez da sortzen planifikatutako prozesuetatik. Baina, hemen, sena eta norbanakoaren eskarmentua ez dira nahikoa. Gogora dezagun besteekin batera ikasten dugula, komunitatean; beraz, lagungarria izango da praktika horiek ebaluatzeko prozesu bat izatea; gidak eta irizpideak izan beharko ditugu, identifikatzeko ea benetan izan den aldaketarik gure ikasleen ikaskuntzan, gure jardunean edo ikastetxean bertan. Eta aldaketa hori onerako bada, jakin behar dugu zer hobetzen duen, eta, batez ere, nola inplementatu behar den egokiro, dela gure arloan, dela beste arlo batzuetan. Ebaluazio-prozesu arrunta da, berrikuntza hobetuko duena eta, batez ere –eta horixe da garrantzitsuena–, partekatzea ahalbidetuko duena. Azken finean, honako ekuazio hau hartu behar da kontuan:

zorroztasun zientifikoa + bihozkada

Demagun aurrez aurreko ikasgela batean irakatsi dugula beti, baina, bat-batean, egoera jakin batzuk direla-eta, online eman behar ditugula eskolak. Pentsa dezagun ebaluazio-jarduera bat dinamizatzeko asmoz ikasgelara gamifikazio-elementu bat eraman dugun kasuren batean. Ikasgelan lehen aldiz aurkezpen bat proiektatzen dugunean. Edo joko-taula tradizional bat ingurune digital batera egokitu dugunean. Berritzen ari gara? Fidalgoren proposamenean (2017) oinarritutako bost adierazle eskainiko ditugu; lagungarri izan daitezke proposamen berritzaile baten ebaluazioa egiteko eta –are garrantzitsuagoa– hura partekatzeko, guztia ere esperientzia bakar izan ez dadin eta ikasgela bateko lau hormen barruan gera ez dadin.

- **Originaltasuna eta sormena.** Originaltasuna ez datza teknologian, hura ikaskuntzaren mesedetan erabiltzeko moduan baizik. Beraz, ideia bat originala ote den jakiteko horri buruz zer egin den ikertzen jardutea da lehen urratsa, beste iturri batzuetara jotzea eta hainbat arlotako hezkuntza-sareekin harremanetan egotea. Hala, beste batzuek ikusi ez dituzten galderak, arazoak edo konexioak ikustea eta ikasteko espazio gisa ulertzea da sormena. Sormena ertzetan gertatzen da, bazterretan, eta, beraz, arazo bat konpontzeko ideiak konbinatzeaz gainera, ezinbestekoa da diziplinen eta testuinguruen arteko elkarriketa ezartzea, zeinak ez baitira beti jarduten elkarrekin elkarriketan konponbidea aurkitzeko. Ikasgelako arazo baten aurrean (adibidez, “nola konpondu hizkuntza-ikasgelako interakzioaren arazoa online-inguruneetan?”), baliteke ikaskuntza-sare informalean indartzea ideien eta baliabideen trukea. Hori horrela, hainbat adibide topa ditzakegu 2020ko martxoko larrialdi-egoeraren ondotik. Gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakasten duen Arancha Pastorrek (2020), adibidez, Twitterren partekatu zituen ikasleek onlineko eskolen aurrean zituzten erreakzioak: “Iruditzen zait ez zaudela”, “Ez dut hainbeste ikasten”, “Nahiago dut guztiok elkarrekin”. Alicia Hernandok (2020) berriz, gaztelania-irakaslea atzerriko hizkuntza gisa hura ere, adierazi zuen zaila dela txandak eta esku-hartzeak antolatzea onlineko eskoletan, ikasle ugari direnean.
- **Eraginkortasuna.** Proposamenak jatorrian ezarri ziren helburuak bete behar ditu, eta, gainera, horiek betetzen diren ebaluatu behar du, metodo zientifikoa erabiliz, izan kuantitatiboa (estatistikak) izan kualitatiboa (behaketa, elkarriketak, galdetegiak, landa-oharrak). Nola ebaluatu ikasle bakoitzaren parte-hartzea, elkarlaneko eta lankidetzako ikaskuntza eskatzen duen jarduera batean? Zein da modurik onena irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuari buruzko feedbacka emateko –lorpen, errentagarritasun eta egokitzapena kontuan harturik– arautu gabeko ikastetxe batean hizkuntza bat ikasten ari diren ikasle helduei, jakinik ez dagoela azterketak egiteko obligaziorik? Esate baterako, Cervantes Institutuko Irakasle Prestakuntza Zentroaren *Cómo innovar en la era digital* ikastaroan (2019), hau proposatzen du Teresa de Santos gaztelania-irakasleak bere ekintza-plan berritzailearen barruan: *foku-taldea* teknikaren bidez ebaluazio-sistema bat ezartzea; hala lortuko da irakaskuntza-ikasgelaren prozesuari

buruzko atzeraelikadura ematea eta jasotzea, lorpenei, errentagarritasunari eta egokitzapenari buruzko azterketatik harago⁶.

- **Efizientzia.** Aldaketak hobera egin behar du, praktikak lehendik zituen alderdi onak galdu gabe. Proposamen berriak ekarriko duen kostua, ahalegina edo inbertitutako denbora ezingo da izan aplikatu aurrekoa baino handiagoa. Adibidez: jardun biko ikaskuntza-modalitatean –aurrez aurreko eskolak eta online, eta ikasgelatik kanpoko lan autonomoa baliatzen dituen–, nola planifikatu eraginkortasunez ikasleen eta irakaslearen lana bikoiztu gabe?
- **Transferigarritasuna.** Funtsezko printzipioen artean ageri da praktika beste maila batzuetan baliatu ahal izatea, beste ikasle talde batzuekin (beharrezko egokitzapenekin), baita beste irakasgai batzuetan ere. Printzipio hori betetzen ez badu, berrikuntza sorburu-ikasgai geratuko da, eta, irakasleak erabiltzeari uzten dionean, desagertu egingo da. Hala ere, berrikuntza ona bada, eskainiko du aukerarik beste testuinguru eta ikasgai batzuetan partekatzeke, erabiltzeko eta aberasteko. Nola berrerabili eta egokitu ditzaket jarduera berak maila baterako edo besterako? Nola aprobeatza dezaket nire ikasgelan ondokoan egiten dutena? Adibide bat jartzearren, Natalia Alarcón gaztelania-irakasleak *innovador#* izeneko ekintza-plan berritzailean proposaturiko proiektuan, ikasleek ingurune ireki batean lan egiten dute, beren ikaskuntza-esperientzia aberasteko eta hedatzeko, arestian aipatu den Cervantes Institutuko Irakasleen Prestakuntza Zentroaren *Cómo innovar en la era digital* (2019) ikastaroaren barruan (Natalia AM, 2019).
- **Jasangarritasuna.** Ebaluatu dezagun proposamen berritzaile baten multzoa, ez gauzatzen den unean soilik, baizik eta kontuan hartuta eutsi ahal izateko beharko dituzten giza baliabideak, baliabide teknologikoak eta prozesu-baliabideak. Alde horretatik, funtsezkoa da irakasleen eta ikastetxearen arteko elkarrikeria eta koordinazio horizontala. Nola igaro gaitezke, konparazio batera, alarma-egoeraren ondorioz (2020ko martxoa), online-irakaskuntza protagonista izan den larrialdi-egoeratik kalitatezko hezkuntza-proposamen jasangarri batera, pertsonak eta bizitza erdigunean jarririk?

Gogora dezagun hezkuntza eta beraren erronkak hezkuntza-komunitate, ikastetxe, irakasle, ikasle eta administrazio osoaren erantzukizuna direla. Eta hezkuntza-berrikuntzak lau zutabe behar dituela gauzatu ahal izateko: prozesuak, ezagutza, teknologiak eta pertsonak. Geu gara bitartekoa.

*You have brains in your head. You have feet in your shoes.
You can steer yourself any direction you choose.
Dr. Seuss (Oh, the Places You'll Go!).*

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

⁶ Ikus: <https://docs.google.com/document/d/1IP08rIthXYvgZz7npPnXSsbqFjXDu6aRBj0xKPdmvml/edit#>

Bibliografia eta erreferentziak

- Alonso, E. (2020, maiatzaren 20a). *Masterclass con Encina Alonso: Motivación, atención y memoria*. [Hitzaldia]. Universidad Nebrija.
- Aristu, A. (2020, ekainaren 6a). ¿El profesor de español como creador y diseñador de materiales? *UNIBA, Centro Universitario de Barcelona*. <https://www.unibarcelona.com/es/actualidad/noticias/el-profesor-de-espanol-como-creador-y-disenador-de-materiales>
- Arnold, J. (2006). Los factores afectivos en el aprendizaje del español como lengua extranjera. *Études de Linguistique Appliquée*, 144. https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/antologia_didactica/claves/arnold.htm
- Attard Montalto, S., Walter, L., Theodorou, M., eta Chrysanthou, K. (2016). *Guía CLIL*. <https://www.languages.dk/archive/clil4u/book/CLIL%20Book%20ES.pdf>
- Ausubel, D. P. (1976). *Psicología educativa. Un punto de vista cognoscitivo*. Ed. Trillas.
- Campamento Norte. *Aprender a aprender*. Hemendik eskuratua 2020ko abuztuaren 10ean, <https://campamentonorte.com/cursos/aprender-a-aprender/>
- Campamento Norte. *Aprendizaje de léxico en el aula de idiomas*. Hemendik eskuratua (2020ko abuztuaren 10ean, <https://campamentonorte.com/cursos/aprendizaje-del-lexico-en-el-aula-de-idiomias/>
- Cobo, C. eta Pardo Kuklinski, H. (2020). *Expandir la universidad más allá de la enseñanza remota de emergencia. Ideas hacia un modelo híbrido post-pandemia*. Outliers School.
- Cobo, C. (2016). *La Innovación Pendiente. Reflexiones (y Provocaciones) sobre educación, tecnología y conocimiento*. Colección Fundación Ceibal / Debate. https://digital.fundacionceibal.edu.uy/jspui/bitstream/123456789/159/1/La_innovacion_pendiente.pdf
- Cobo Romani, C. eta Pardo Kuklinski, H. (2007). *Planeta Web 2.0. Inteligencia colectiva o medios fast food*. Grup de Recerca d'Interaccions Digitals, Universitat de Vic. / Flacso México.
- Columbia LRC (2015, uztailaren 6a). Reyes Llopis-García: "NYC as a Canvas for Spanish Language, Culture, and Identity". [Bideoa]. YouTube. <https://youtu.be/3X81KCvKYdA>
- Concheiro, P. (2017): Interacción y colaboración en el aula de ELE a través de la web social. *Foro de profesores de E/LE*, 13. <https://ojs.uv.es/index.php/foro/article/view/10877>
- Downes, S. (2007, otsailaren 3a). What Connectivism Is. *Half an hour*. <https://halfanhour.blogspot.com/2007/02/what-connectivism-is.html>
- EducaThyssen. *Alfabetos, laboratorio de idiomas y educación intercultural*. Hemendik eskuratua 2020ko abuztuaren 10ean, <https://www.educathyssen.org/profesores-estudiantes/alfabetos>
- Hernando, A. [@CaperucitaenM]. (2020, maiatzaren 30a). *No veo fácil solución, porque nos enfrentamos además a un factor súper importante (en este entorno también), el número de alumnos*. [Txioa]. Twitter. <https://twitter.com/CaperucitaenM/status/1266672812112084994>
- Instituto Cervantes. *Cursos de Formación de Profesores. Cómo innovar en la era digital*. Hemendik eskuratua 2020ko abuztuaren 10ean, https://cfp.cervantes.es/actividades_formativas/cursos/cursos_cervantes/CFP539-20.htm
- Llopis-García, R. (2015). *Perspectivas visuales para reflejos socioculturales. Ideas para un análisis real del paisaje lingüístico de ÑYC*. https://www.canva.com/design/DADqXJRT8vo/o_Rf5zewYI9tkn4g3IjXQ/view?utm_content=DADqXJRT8vo&utm_campaign=designshare&utm_medium=link&utm_source=viewer
- Méndez Santos, M. (2016). *Guía para profesorado de ELE. Versión 6.0* <http://mariamendezsantos.com/?p=795>
- Méndez Santos, M.C. eta Galindo Merino, M.M. (Ed.) (2017). *Atlas del ELE. Geolingüística de la enseñanza del español en el mundo. Volumen I. Europa oriental*. EnClaveELE. <http://www.todoele.es/atlas-ele>
- McCracken, G. (2012). *Culturematic. How Reality TV, John Cheever, a Pie Lab, Julia Child, Fantasy Football... Will Help You Create and Execute Breakthrough Ideas*. Harvard Business Review Press.
- Natalia AM. (2019, azaroaren 29a). *Plan de innovación docente #innovaciónELEIC*. [Bideoa]. YouTube. <https://youtu.be/QQzsMzKTQVA>
- Niño, J. (2019, irailaren 29a). *Metáforas visuales. Profe de español.de*. <https://www.profe-de-espanol.de/2019/09/23/metaforas-visuales/>
- Pastor, A. [@aranchapastor]. (2020, maiatzaren 30a). *Yo les pido mucho feedback a mis chicos aprovechando que nos conocíamos ya y había bastante confianza. Mi sorpresa de* [Txioa]. Twitter. <https://twitter.com/aranchapastor/status/1266672964961009667>
- Piscitelli, A. (2009). *Internet: la imprenta del siglo XXI*. Gedisa.

- Pons, L. (2019, abenduaren 20a). *La lengua que habitamos. Lecturas del paisaje lingüístico en clase*. [Hitzaldia]. XXVIII Encuentro Práctico de profesores de ELE Barcelona.
- Pozo, J. I. (2018). Aprendiendo a jugar partido en la educación in Trujillo Saéz, F., *Activos de aprendizaje* (5-10 or.) <https://aprenderapensar.net/wp-content/uploads/2018/11/Primeras-p%C3%A1gina-de-Activos-de-aprendizaje.pdf>
- Rodríguez, J. R. (2014, maiatzaren 30a). Una aproximación visual a las preposiciones. Reflexión e infografía. *jrmamonele.com*
<https://jramonele.blogspot.com/2014/05/una-aproximacion-visual-las.html>
- Ruiz Martín, H. (2019). *¿Cómo aprendemos? Una aproximación científica al aprendizaje y la enseñanza*. Graó.
- Salaberry, M. (2001). The Use of Technology for Second Language Learning and Teaching: A Retrospective. *The Modern Language Journal*, 85. 39-56.
<https://doi.org/10.1111/0026-7902.00096>
- Sein-Echaluze, M.L, Fidalgo-Blanco, A eta Alves, G (2016). Technology behaviors in education innovation. *Computers in Human Behavior*, 72, 596-598.
<https://doi.org/10.1016/j.chb.2016.11.049>
- Siemens, G. (2010). *Conociendo el conocimiento*. Ediciones Nodos Ele.
- Tabakalera. Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa. *Ikastolatik auzora, auzotik ikastolara. Jakintza ikastolarekin egindako Eskola Aldiriak proiektua*. Hemendik eskuratua 2020ko abuztuaren 10ean, <https://www.tabakalera.eu/eu/ikastolatik-auzora-pasabide-berriaren-ireki>
- Torres, L. (2020). Hacia una enseñanza online sostenible y de calidad. *UNIBA Centro Universitario de Barcelona*.
<https://www.unibarcelona.com/es/actualidad/noticias/hacia-una-ensenanza-online-sostenible-y-de-calidad>
- Trujillo, F. (2017, ekainaren 19a). ¿Por qué han fracasado las “competencias” en educación? Lecciones para futuros intentos de innovación educativa. *Fernando Trujillo_De estranjis*. <https://fernandotrujillo.es/por-que-han-fracasado-las-competencias-en-educacion-lecciones-para-futuros-intentos-de-innovacion-educativa/>
- Trujillo, F. (2019, martxoaren 29a). Innovación en la enseñanza de idiomas: rutas y posibilidades. *Fernando Trujillo_De estranjis*.
<https://fernandotrujillo.es/innovacion-en-la-ensenanza-de-idiomas-rutas-y-posibilidades/>